

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2215

337/2020 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Gorka Ojinaga Garcia jauna aldi baterako izendatzen baita Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko Anestesiologia eta Bizkorketako Atal Sanitarioko buru (Bloke kirurgikoko koordinazioa), lau urteko eperako eta luzatzeko aukerarekin.

Abuztuaren 14ko 1318/2019 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Anestesiologia eta Bizkorketako Atal Sanitarioko Buruaren (Bloke kirurgikoko koordinazioa) lanpostua lehiaketaren bidez betetzeko.

Balorazio Batzordea aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Gorka Ojinaga García jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Anestesiologia eta Bizkorketako Atal Sanitarioko buru (Bloke kirurgikoko koordinazioa).

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko, 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko, 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko, 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gorka Ojinaga Garcia jauna Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Anestesiologia eta Bizkorketako Atal Sanitarioko buru (Bloke kirurgikoko koordinazioa) izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Aldi baterakoa izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua Hirugarren Arau Komunean xedatutakoarekin bat etorritik, eta data honetatik aurrera ondorioak izango ditu: 2020ko martxoaren 1a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitutakoan lanpostua utziko du, ezpada luzapena onartzen, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko, 8/1997 Legeko 28. artikulua Hirugarren Arau Komunean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kargutik kendu ahal izango dute, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunei eta Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzari Ebazpen honen berri ematea.

2020ko ekainaren 8a, astelehena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza zuzendari nagusiari, Ebazpen hau EHAAan argitaratzen den hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Barakaldo, 2020ko otsailaren 25a.

Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESIko zuzendari gerentea,
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.